

ARAUTEGIA

1. artikulua: Hernani Kirol Elkarteko atletismo sekzioak, Hernaniko "Jai Nagusien" egitarauaren barruan, "XIV. AZERI BILA HERRI LASTERKETA" antolatzen du. Lasterketa 2012ko ekainaren 16an izango da.

Kirol proba honen antolaketan laguntzaile izan ditugu baita ere: Hernaniko Udala eta Hernaniko Kiroldegia.

2. artikulua: ibildidea osatzeko 4,5 kilometroko zirkuitu zoru zerbait konkorduna den bati bi itzuli eman beharko zaizkio, guztira 9 kilometroko luzera osatuz.

Irteera eta helmuga Urbieta kalean egingo dira.

Irteera arratsaldeko 18,30etan izango da eta Helmuga kontrola, irten eta ordu eta hamar minutura itxiko da.

3. artikulua: Lasterketako inskripzioa pertsonala eta besterenezina da eta arautegiaren onarpena suposatzen du. Inskripzioa gauzatuz gero, ezingo da beste pertsona bati partaidetza eman. Izen ematearen dirua ez da itzuliko edozein arrazoia izanik.

Izena ematea www.kirolprobak.com -en egingo da.

Izen emateko epea maiatzaren 13an hasi eta ekainaren 15ean amaituko da (Txip txuria 10 € eta Txip horia 8 €).

Lasterketa egunean helmugan bertan, korrikaldia hasi baino 30 minutu lehenago (15 €)..

4. artikulua: lasterka egunean 16 urte beteta dituen orok parte har dezake.

Sailkapen independententeak egingo dira honako talde hauen arabera:

Emakumeak: 1.- Seniorrak: 16 eta 35 urte bitartean (herrikoak eta herrikoak ez direnak).
2.- Beteranoak: 35 urtetik gorakoentzat (herrikoak eta herrikoak ez direnak).
Gizonak: 3.- Seniorrak: 16 eta 35 urte bitartean (herrikoak eta herrikoak ez direnak).
4.- Beteranoak: 40 urtetik gorakoentzat (herrikoak eta herrikoak ez direnak).

5. artikulua: lasterketa amaitzen duen korrikalari bakoitzari kamiseta bana oparituko zaio oroimen bezala. Bestalde, lasterketa amaitzen dutenen artean sari hauek banatuko dira:

-Bi pertsonentzako aste bukaerako bidaia: Hernani Bidaiak.

-Bi pertsonentzako afari edo bazkariak leku hauetan: Fagollaga, Errioguarda, Arrobi, Zumardi, Gunea eta Zumitza.

Horrez gainera, sailkapen bakoitzeko hiru lehenengoei garaikur bana emango zaie. Garaikurrak ezingo dira metatu.

Garaikurrak eta sarien zozketa helmugan bertan banatuko dira kategori ezberdinen sailkapena eskuratutakoan (19,45 aldean).

6. artikulua: izen ematea online egiten denez, dortsala eta Txipa (txuria) lasterketa irteeran bertan hartuko dira 16:30tik aurrera. Izena eman denaren agiria edo NAN aurkeztu beharko da. Dorsalak bularrean jarri beharko dira ondo ikusteko moduan, osorik eta tolesturarik gabe. Txipa (txuria) lasterketa amaitzen denean itzuli egingo da.

7. artikulua: antolatzaileek saihestu egiten du proba honetan parte hartzeagatik, parte hartzaileari, beste pertsoneri eta are hirugarren pertsonen parte hartzaileari egin diezazkieten kalte, galera edo lesioengatik erantzukizun oro.

8. artikulua: parte hartzaile guztiek, parte hartzeagatik, arautegi hau onartzen dute. Aurreikusita ez dagoen guztian dagokion arautegi federatiboa aplikatuko zaio.